

Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) adierazpen instituzionala, iruzurraren aurka borrokatzeko konpromisoari buruzkoa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismo Europarraren funtsekin finantzatutako ekimenak gauzatzeko esparruan.

EEEk erakunde instrumentalaren funtzioak betetzen ditu Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean (SEEP).

Eta jasota gera dadin, adierazten du arau juridiko, etiko eta moralak betetzeko estandar gorenekiko duen konpromisoa eta bere jarduera guztietan duen osotasunaren, objektibotasunaren eta zintzotasunaren printzipio zorrotzenekiko atxikimendua hedatzen dela, ezin bestela izan, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren Europako funtsekin finantzatutako jardueretara.

Bere zerbitzura dauden langileek, enplegatu publikoak diren aldetik, honako konpromiso hauek dituzte, besteak beste: «interes orokorrak zaindu beharko dituzte Konstituzioa eta gainerako ordenamendu juridikoa betez; halaber, honako printzipio hauen arabera ere jardun beharko dute: objektibotasuna, osotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, zerbitzu publikoaren aldeko dedikazioa, gardentasuna, eredugarritasuna, austeritatea, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kulturaren eta ingurumenaren sustapena, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko errespetua» (5/2015 Legea, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuarena, 52. artikulua).

Horrez gain, erakundearen buru izateko erantzukizuna duten kargu publikodunek atxikimendu-adierazpena egiten diote «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari eta bere sektore publikoko kargu publikodunen Etika eta Jokabide Kodeari» (Gobernu Kontseiluak 2016ko azaroaren 22an egindako bilkuran onartua), eta horrek, funtzionarioentzat eta lan-kontratuko langileentzat legez ezarritako konpromisoei eta balioei gehitu egiten dizkie beren gain hartutako erantzukizunarekin zuzenean lotuta daudenak. Ez da deklarazio-kodea edo benetako ondorioz ez duena; aitzitik, ez-betetzeak jarraipeneko barne-sistema aktibatzen du, eta horrek ekar lezake langileak betetzen duen lanpostua utzi behar izatea edo, hala badagokio, organo eskudunei gomendioak ematea, gertatutako desbideratzeak zuzen daitezzen.

Kasu guztietan, helburua da iruzurrezko jarduera oro zapuztuko duen eta halakoen prebentzioa eta detekzioa bultzatuko duen kultura sustatzea erakundearen barruan, kasu horiek kudeatzeko prozedura eraginkorrak gara daitezzen bultzatuz.

Bere jardueraren kasu berezian, SEEPen erakunde instrumental gisa, EEEK bat egiten du Eusko Jaurlaritzak definitutako iruzurraren aurkako, interes-gatazkako, finantzaketa bikoitzeko eta estatu-laguntzetako eta ingurumenari kalte adierazgarririk ez egitearen arloko eskakizunak betetzeari buruzko neurrien planarekin, Europako Erkidegoko araudiarekin bat etorritik. Neurrien plan hori Gobernu Kontseiluari helarazi dio Sailarteko Batzordeak, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko informazioa eta jarraipena egiteko, 2022ko martxoaren 29ko bilkuran onartua izateko.

Plan horrek ahalik eta gehien aprobetxatzen ditu lehendik dauden esperientzia eta mekanismoak, eta prozesu egokiak ezartzen ditu iruzurraren arriskua ebaluatzeko, prebenitzeko, erantzukizun-arlo bakoitzaren barruan barne-kontrolerako sistema egokia

dagoela ziurtatzeko eta, behar izanez gero, neurri zuzentzaileak bizkor ezarriko direla bermatzeko.

Era berean, neurrien planak administrazio-baliabideak ezartzen ditu, irregulartasunak edo iruzur-susmoak salatzen, konfidentziasuna errespetatuz eta arlo hori erregulatzen duten arauen arabera, jakinarazpenetarako barne-kanalen bidez, eta betiere agintaritzaren arduradunarekin, kontrol-agintariarekin, Iruzuraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalarekin eta Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoarekin elkarlanean.

Bilbon, sinadura elektronikoaren datan

Stua.: Iñigo Ansola Kareaga

Zuzendari Nagusia